

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Edurne Laborda Astiazaran

*Bergara,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Bidekurutzeta kalean jaio zen, aitaren bigarren ezkontzako bi anai-arrebatatik gazteena. Ama Usurbildik etorritakoa zen, emagin baten alaba eta emagina bera ere. Aita, berriz, okin familia batean sortutakoa izan arren, arotza izan zen lanbidez.

Irakaskuntzako serora Andre Mariaren lagunarteko mojekin hasi zen eskolan, eta 1934. urtean Goiko Plazan jarri zuten ikastolara joan zen gerra hasi zen arte.

Edurneren osaba Ramon abeslari eta abade ezaguna izan zen, eta anaia Joseba, berriz, Udaleko txistularia. Bai aitak eta bai amak Telesforo Monzonen etxean egin zuten lan. Edurnek hamasei urterekin josten ikasi zuen, eta urte askoan jardun zuen joskintzan. Arabako Araia herritik bere familiarekin etorritako Anjel Agirrerekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-285

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-14
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ama emagina; anaia gazteenaren erditzean lagundu zuen

- **Erref:** BER-285/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Ama emagin lanean ibiltzen zen. Bere amari ere lagundu omen zion, anaia gazteenaren erditzean. Amandrea ere emagin lanean ibiltzen zen eta hark eman zizkion azalpen guztiak. Bergaran erditze askotan lagundu zuen amak eta, gainera, emakumeak indartu arte euren etxean geratzen zen, haiek zaintzen edo etxeko lanak egiten.

2. Ramon Laborda osaba; dirua batzeko kantaldia

- **Erref:** BER-285/009
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Edurneren osaba, Ramon Laborda, oso famatua zen. Luis Marianorekin ere abestu omen zuen. Poltsikoak hutsik izan arren, beti jendeari laguntzeko prest. Behin San Migel baserrikoei oinaztu bat sartu zitzaien leihotik eta anaia bat hil egin zen. Edurneren osabak Anbrosioneko zineman kantaldi bat antolatu zuen, tximistorratz bat ipintzeko dirua batzeko.

3. Ramon Laborda osaba; San Migelera margolana ekarri zuenekoa

- **Erref:** BER-285/010
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Ramon Laborda osaba Donostiako Arrazola mediku ezagunaren laguna zen. Sarri joaten zen haren etxera. Han zeukaten margolan bat San Migelgo ermitara ekarri ei zuen. Aitorlekua ere berak batutako diruarekin egina omen da. San Migelgoek "Aingeru" deitzen zioten. Oso euskaltzalea eta eskuzabala zen, nahiz eta berak ezer askorik izan ez.

4. Ramon Laborda osaba, oso eskuzabala

- **Erref:** BER-285/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Edurneren lehengusu bat Frantzian bizi zen ezkontuta. Ramon Laborda osaba haren etxera joaten zen tarteka bazkaltzera. Osabaren eskuzabaltasuna erakusten duen pasadizoa kontatzen du Edurnek.</p>

5. Ramon Laborda osaba; Parisen Luis Marianoren ondoan abesten

- **Erref:** BER-285/012
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Ramon Laborda osaba oso abeslari ona zen. Behin Parisen Luis Marianorekin eta haren irakaslearekin topo egin ei zuen. Kafetegi batean irakasleak pianoa jo eta Luis Marianoren aldamenean abestu zuen.</p>

6. Joseba Laborda, anaia, txistularia

- **Erref:** BER-285/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Edurneren anaia, Joseba Laborda, txistularia zen. Musika Bandaren deskantsuetan jotzen zuen txistua, adibidez. Baita bestelako ekitaldi eta jaietan ere. Udal langilea zen. Gazterik hil zen, bihotzeko baten ondorioz.

7. Gerraren hasieraren berri Orion

- **Erref:** BER-285/017
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gerraren hasieraren berri nola izan zuten. San Juan batzuetan txarto egon zen

sudurreko hemorragia baten ondorioz. Don Roman medikuak lekuz aldatzea komeni zitzaiola esan zion eta Oriora joan ziren trenez, amandrearengana. Hara iristean osabak esan zien gerra hasia zela Donostian. Ama berarekin geratu behar izan zen Orion egun batzuetan.

8. Gerra sasoian ilea zerora moztu zuenekoa

- **Erref:** BER-285/018
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:22:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gerra sasoian gripe tifoidea izan zuen Edurnek eta ilea erortzen zitzaion. Aspertuta zegoenez, ile-apaindegira joan zen eta ilea zerora mozteko eskatu zuen. Orduan euskaltzaleei edo euskarazko izena zutenei ilea halaxe mozten zieten. "El Abuelo" deitzen zioten erreketek uste izan zuen beraiek moztu ziotela ilea. Zer mehatxu egin zion. Etxean kontatu zuen gertatutakoa eta aitak erreketeari kontuak eskatu zizkion.

9. Bonba batek Artekalean Luis nola hil zuen

- **Erref:** BER-285/019
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra sasoian lehenengo bonba Artekalean jausi zen. Kalearen ertzean eserita egoten zen Luis jo zuen bete-betean eta bertan hil zen.</p>

10. Monzonen etxeko baliozko gauzak ganbaran gorde zituzten

- **Erref:** BER-285/020
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:26:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita arotz-lanetan ibili izan zen Monzonen etxean eta ama bertako neskamea izan zen urte askoan. Gerra sasoian baliozko gauzak euren etxean gordetzeko eskatu zieten. Ganbaran eduki zituzten gordeta. Monzonen etxeko giltzariak salatu egin zituen eta dena kendu zieten. Erreketeak zetoze la pentsatzen zutenean, aita Ubera aldera joaten zen ezkutatzera. Anaia hain euskaltzalea zenez, beldur zen zuen abizenagatik atxilotuko ote zuten. Azkenean, trintxerak egitera behartu zuten, zigor moduan.

11. Euren etxe ondoan erori zen bonba

- **Erref:** BER-285/021
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketa Bergaran. Euren etxe ondoan jausi zen bonba bat, baina ez zen kristalik ere apurtu. Hala ere, ganbaran ezkutatuta zuten ikurrina bistaratu ei zen! Bonbak botatzen zituztenen artean bergararrak ere bazirela eta senideren bat jotzeko beldur zirela dio.</p>

12. Izebak gerran bizitako egoera garratzak

- **Erref:** BER-285/023
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoiko kontu gordinak. Osaba-izebak Elgetara bidean bizi ziren. Osaba moroek hil ei zuten, emaztea haurdun zegoela. Izebak Gernikan izan zuen umea, baina hilda jaio zen. Beste alaba Frantziara eraman zuten eta sakabanatuta ibili ziren ama-alabak gerratean. Izebak burua galdu zuen azkenean.

13. Lantegientzako arropak josten

- **Erref:** BER-285/024
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Gerra amaitu zenean, josten lan egin zuen jostundegi batean. Lagun gehienak lantegian zebiltzan lanean, baina bere amak ez zuen nahi bera lantegira joaterik. Orduan, lantegientzako arropak josten hasi zen, baina

etxetik. Lan gogorra eta gutxi ordaindutakoa. Jostea beti gustatu izan zaio.16 urte ingururekin ikasi zuen josten.</p>

14. Amandreak tabako orriekin egosten zituen angulak

- **Erref:** BER-285/028
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:35:24. **Bukatu:** 00:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerra hasi zen garaian Orion egon zen hiru osaba ezkongabe eta amandrearekin. Osabak angulatara joaten ziren gauez, farola hartuta. Angulak bizirik ekartzen ziren eta amandreak lapiko handi batean egosten zituen tabako orriekin. Esku ona ei zuen. Osaba baten neska-lagunak Donostiako ostatu batean lan egiten zuen eta hara eramaten zituzten harrapatutako angulak. Orio inguruan tabako asko hartzen zen.</p>

15. Kanpaiak entzutean, denak babeslekuetara, bonbetatik babesteko

- **Erref:** BER-285/034
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:42:01. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra sasoian gazte jende guztia herritik joan zen. Hegazkinak bonbak botatzera zetozenean, kanpandorrean zaintzan zeudenek kanpaiak jotzen zituzten. Orduan, jendea babeslekuetara joaten zen. Aldameneko etxean biltzen ziren bizilagun guztiak, sotoaren gaineko gelan. Koltxoia ipintzen zituzten, bonbentzako babes moduan, eta lasai egoten ziren.</p>

16. Abadeen aipamenari esker, inoiz baino jende gehiago zinemara

- **Erref:** BER-285/037
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Gogoan du behin abadeek pulpitutik esan zutela zineman botatzen ari ziren pelikula oso gogorra zela eta hara joaten zena eskumikatu egingo zutela. Inoiz baino jende gehiago joan omen zen! Ilara luzea egon ei zen "Novedades" zinema kanpoan; sarrerak hartzeko borrokak ere bai azkenean.

17. Dantza eske etorrita hasi zen senargaiarekin harremana

- **Erref:** BER-285/044
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:51:08. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Senarra ezagutu zueneko kontuak. Dantza eske etorri zirenean, kalabaza eman zieten mutilei. Bigarrenean, San Martzialgo erromerian, dantzan egin zuten eta handik hasi zen harremana. Edurneren laguna haserretu egin zen, mutil bera gustatzen zitzaion eta.

18. Senarra Araiakoa; haren gurasoen bizimodua

- **Erref:** BER-285/046
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Senarra Araiakoa zen. Amak ez ei zekien euskaraz eta aitak ez ei zekien gaztelaniaz, baina 12 seme-alaba izan zituzten. Senarraren aita ikazkin lanean ibiltzen zen. Amaren anaia batek "Altos Hornos"en lan egiten zuen eta haren bitartez sartu zen hura ere lantegian. Amak neskame lanean jarduten zuen eta alaba zaharrena uzten zuen ume txikiagoak zaintzen.</p>

19. Senarra oharkabean Gernikako bonbardaketan

- **Erref:** BER-285/049
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:58:21. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Senarra Gernikako bonbardaketan egon zen, hodiren batean ezkutatuta. Zubiaurren jolasean zebiltzala, soldadu batzuek ea Intxortarako bidea zekiten galdetu zieten. Bi anaia joan ziren haiei bidea erakustera. Bitartean, erreketek sartu ziren eta ezin etxera itzuli. Amak anaia zaharragoa bidali zuen haien bila. Ihesean Bilboraino joan ziren hiru mutikoak. Gernikan zeudela, bonbardaketaren ondorioz, sakabanatu egin ziren eta ez zuten izan elkarren berririk.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com